

Beatriz Gámiz Mata, Ermuko Udal Talde Sozialistaren bozeramaleak eta Jol Gisasola jaunak, EAJ-PNV udal taldearen bozeramaleak, ondoko mozio aurkezten diote Udalbatzari.

Hamasek zibilen aurka egindako erasoak onartezina eta gaitzesgarria da. Eraso horretan 1.400 pertsona hil zituzten, eta horien artean Ivan Illarramendi euskal herritarra dago.

Onartezina eta gaitzesgarria da Israelgo Estatuak, errepresalia gisa, palestinar biztanleria zibilararen aurka egiten ari den bereizketarik gabeko erasoak. Biztanleria zibila, helburu militar inoiz izan behar ez duena, blokeatuta dago munduko aire zabaleko kartzelarik handiena deitzen dioten horretan, eta etengabeko biktimen kopurua, tartean adingabeak, kezkarria da. Milaka palestinar hiltzen ari dira Gazan, horietako asko adin txikikoak. Aldi berean, asko kezkatzen gaitu Zisjordanian gertatzen ari den indarkeria gero eta handiagoak.

Palestinan bizi den indarkeriak eragiten duen lazturaren aurrean, Ermuko Udalak:

1. Biziki deitoratzen eta arbuizatzen ditu azken hilabeteotan pertsona zibilen, palestinar zein israeldarren, hilketa guztiak.
2. Bere maitasuna eta babesa agertzen die Ivan Illarramendi Saizar euskaldunaren eta Loren Garcovich bere bikotekidearen senide eta lagunei, bai eta bere elkartasuna biktima eta senide guztiei.
3. Berehalako su-etena eskatzen dio Israelgo Estatuari, eta Hamasek bahitu guztiak aska ditzala, bai eta nazioarteko legeria eta Nazio Batuen Erakundearen ebazpenak betetzea, biktima guztien giza eskubideak errespetatu daitezen.
4. Laguntza humanitarioa etenik eta mugarik gabe sartzeko eskatzen du, herritarrek ura, elektrizitatea, erregaia, elikagaiak, sendagaiak eta bizitzarako funtsezkoa den guztia eskuratu ahal izan dezaten.
5. Gazako biztanleriari ezartzen ari zaion zigor kolektiboa salatzen du; izan ere, Gatazka Armatuen Legean, Genevako eta Hagako konbentzioak, besteak beste, barne hartzen dituenak, ezarritakoaren arabera zigor kolektiboa gerrako krimena izateaz gain, Gizateriaren Aurkako Krimen gisa tipifikatuta dago. Ez dago, beraz, palestinar herriari ezartzen ari zaion zigor kolektiboa justifika dezakeen erasorik.
6. Espainiako Gobernuari eta Europar Batasunari eskatzen die beren esku dauden mekanismo diplomatiko guztiak abian jar ditzatela, gatazka eskualde batetik bestera joan ez dadin eta errugabeen bizitza gehiago ez galtzeko, eskualde hartako bakearen, segurtasunaren eta egonkortasunaren aldeko konpromiso irmoa harturik.
7. Erabaki dezala Udaletxeko balkoian bandera palestinarra astebetetz jartzea.